

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

AMURRIOKO UDALA

Behin betiko onestea "Amurrioko Herri Musika Eskola" herri musika zerbitzuaren tasa arautzen duen 7 zenbakiko udal zerga ordenantzaren 14. eranskinaren aldaketa

Udalbatzak, 2019ko martxoaren 28ko osoko bilkuran, hasiera batean onetsi zuen "Amurrioko Herri Musika Eskola" herri musika zerbitzuaren tasa arautzen duen 7 zenbakiko zerga ordenantzaren 14. eranskinaren aldaketa (2018-9-S062 espedientea). Iragarki hori 2019ko apirilaren 15eko ALHAOn (46. zk.) argitaratu zen. Haren aurkako erreklamazioak aurkezteko epea bukatuta, erreklamaziorik aurkeztu ez denez gero, erabaki hori behin betiko bihurtzen da, halaxe agintzen baitu martxoaren 5eko 2/2004 Legegintzako Errege Dekretuak, Toki Ogasunak arautzen dituen Legearen Testu Bategina onesten duenak, 17.3 artikuluan. Horrela, bada, jendaurrean jartzen da, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeak 70.2 artikuluan eta aipatutako Legegintzako Errege Dekretuak 17.4 artikuluan xedatutakoaren ondorioetarako. Zerga ordenantza hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean. Hona hemen zerga ordenantzaren testu aldatua hitzez hitz:

"Amurrioko Herri Musika Eskola" herri musika zerbitzuaren tasa arautzen duen 7 zenbakiko udal zerga ordenantzaren 14. eranskina

1. artikulua. Lege oinarria

Martxoaren 5eko 2/2004 Legegintzako Errege Dekretuak, Toki Ogasunak arautzen dituen Legearen Testu Bategina onesten duenak, 24. artikuluan jasotakoarekin bat etorriz, "Amurrioko Herri Musika Eskola" herri musika zerbitzuaren tasa ezartzen da. Espezialitate hauek eskaini ahal izango ditu zerbitzu horrek: trikitixa, panderoa, txalaparta, danborra, herri perkusioa, alboka eta dultzaina.

2. artikulua. Subjektu pasiboa

"Amurrioko Herri Musika Eskola" herri musika zerbitzuaren tasa ordaintzera beharturik daude Arabako zergei buruzko otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arauak 35. artikuluan aipatzen dituen pertsona fisiko eta juridikoak eta entitateak, baldin eta Amurrioko Herri Musika Eskolan matrikulatzen badira.

3. artikulua. Sortzapena

Matrikula egiten den unean sortuko da tasa.

4. artikulua. Tarifak

1. Hona hemen zergatik eta zenbat kobratuko den tasa hori:

2019-2020 ikasturtea

a) Instrumentu eskolak, banaka: 522,27 euro.

b) Instrumentu eskolak, taldeka: 3 eta 4 ikasle bitarteko taldeak (gehienez ere sei kide), instrumentuaren, adinaren eta mailaren arabera bilduta: 332,37 euro.

c) Taldeak. Sei kidetik gora, hainbat instrumentu, adin eta maila nahasita: 211,50 euro.

2020-2021 ikasturtea

- a) Instrumentu eskolak, banaka: 574,47 euro.
- b) Instrumentu eskolak, taldeka: 3 eta 4 ikasle bitarteko taldeak (gehienez ere sei kide), instrumentuaren, adinaren eta mailaren arabera bilduta: 365,58 euro.
- c) Taldeak. Sei kidetik gora, hainbat instrumentu, adin eta maila nahasita: 232,65 euro.

2021-2022 ikasturtea

- a) Instrumentu eskolak, banaka: 631,89 euro.
- b) Instrumentu eskolak, taldeka: 3 eta 4 ikasle bitarteko taldeak (gehienez ere sei kide), instrumentuaren, adinaren eta mailaren arabera bilduta: 402,12 euro.
- c) Taldeak. Sei kidetik gora, hainbat instrumentu, adin eta maila nahasita: 255,96 euro.

2022-2023 ikasturtea eta hurrengoak:

- a) Instrumentu eskolak, banaka: 695,07 euro.
- b) Instrumentu eskolak, taldeka: 3 eta 4 ikasle bitarteko taldeak (gehienez ere sei kide), instrumentuaren, adinaren eta mailaren arabera bilduta: 442,35 euro.
- c) Taldeak. Sei kidetik gora, hainbat instrumentu, adin eta maila nahasita: 281,52 euro.

5. artikulua. Ordaindu beharra

Hil amaieran ordainduko da, bankuan helbideratuta. Tarifak bederatzi hilabetez, urria eta ekaina bitartean, ordainduko dira hainbanatuta, bankuan helbideratuta, kontuan hartu gabe ikasleak zenbat egunetan joaten diren eskolara.

6. artikulua. Hobariak

1. Tasa ehuneko 20 merkeagoa izango da, baldin eta ikaslearen familia unitate guztia udalerrian errolatuta bada.

2. Aurreko paragrafoan araututako hobariak aplikatzearen ondorio diren kuotak beste ehuneko 50eko hobaria izango dute, baldin eta ikaslea familia ugari kide bada. Horako hori egiaztatzeko, familia liburua edo haren fotokopia konpultsatua aurkeztuko da, matrikula egitean.

3. Aurreko paragrafoan araututako hobariak aplikatzearen ondorio diren kuotek ehuneko 20ko hobaria izango dute, baldin eta familia unitateko hiru kide edo gehiago matrikulatuta badaude.

7. artikulua. Sortutako tarifak zati batean edo guztiz ezeztatzea

1. Matrikulatuei tarifak zati batean edo guztiz ezeztatu ahalko zaizkie, egoera hauetakoren bat gertatzen bada:

- a) Ikaslea edo guraso ahala duen guraso edo tutoretariko bat hiltzen bada.
- b) Ikasturtea hasi ondoren, ikaslearen familia unitatea beste herri batera bizitzera joaten bada.
- c) Ikaslea edo guraso ahala duen guraso edo tutorea lanik gabe geratzen bada.
- d) Ikaslea hamabost egunez baino gehiagok ospitaleratuta egon bada.
- e) Ikasleak ezin baditu bateragarri egin eskolak eskainitako ordutegia eta derrigorrezko bigarren hezkuntzaren ondokoaren eta goi mailako hezkuntzaren ordutegiak, eta/edo gerora, Amurriotik 100 kilometro baino gehiagora dagoen udalerriren bateko ikastetxe batean matrikulatzen bada hezkuntza maila horiek egiteko.

f) Istripu edo gaixotasunen bat izanez gero gerora. Eskaerarekin batera medikuaren ziurtagiria aurkeztuko da. Ziurtagiri horretan hau adieraziko da: ezeztatzeko eskatzen den ikasgaia ikasten aritzeko ikaslearen ezintasuna edo beste zernahi agiri, alegatutako ezintasuna egiaztatzen duena.

g) Matrikula egin eta gero gertatutako ezinbesteko zernahi kausa. Horrelakoetan, nahitaezkoa izango da kultura teknikariaren aldeko txostena eta onartua izango da, baldin eta, gutxienez, kulturako udal batzordeko legezko kideen hiru laurdenek aldeko botoa ematen badute.

2. Ezeztatu egingo da Amurrioko Herri Musika Eskolara hilean egun bat bera ere joan ez den hileko eta hurrengoetako zati alikuota, baldin eta joan ez izanaren arrazoia tarifaren zati bat edo guztia ezeztatzea ahalbidetzen duen arrazoiren batengatik bada.

3. Tarifak partzialki edo guztiz ezeztatzea alkateari dagokio, eta hark Tokiko Gobernu Batzordearen esku utzi du eskumena. Kulturako udal batzordeak irizpena eman ondoren ezeztatuko dira tarifak, ofizioz edo interesdunak hala eskatuta.

8. artikulua. Ez ordaintzea

Tasa horien zorrak premiamendu bidez eskatu ahal izango dira

Amurrio, 2019ko maiatzaren 7a

Alkatea

MIREN JOSUNE IRABIEN MARIGORTA